

Jose Maria Aznarren Gobernuak Eliza Katolikoarekin dituen harreman estuak aztertzen dituen liburua plazaratu berri du.

Mariano Sanchez Soler

Kazetaria eta idazlea

IDURRE ESKISABEL


Kazetaria eta idazlea da Mariano Sanchez Soler (Alacant, 1954), eta, bere hainbat liburutan, bi ofizio horiek uztartu ditu, Espainiako boterearekin zerkusia duten hainbat ikerketa plazaratu baititu azken urteetan. *Las sotanas del PP* (PPren sotanak) da kaleratu duen azken liburua, datu bilketa oparoan eta azterketa zorrotzean oinarrituta, Aznarren gobernuak eta Espainiako Eliza Katolikoak duten harreman une goxoa agerian uzten duen lana.

PP Espainia gobernatzera iritsi zenetik, Eliza Katolikoaren alde egin duela diozu, Konstituzioan Espainiari aitortzen zaion akonfesionaltasuna ezabatzeraino. Horrenbeste aldatu al da PSOEren garaitik, Elizaren eta Estatuaren arteko harremana?

Frankismo garaian, Estatuak —konfesionala zen heinean— zuzenean finantzatzen zuen Eliza Katolikoa. Trantsizio garaian, Konstituzioa onartu zenean, Espainia estatu akonfesionala zela aldarrikatu zen, eta lege berriak jarri, Eliza Katolikoarekiko harremanak arautzeko: 1979ko konkordatuak hitzartutakoak. Akordio horren arabera, urte batzuen epean, Eliza Katolikoak bere burua finantzatzea lortu behar zuen. Ondorioz, Estatuak aurrekontuetatik dirua jasotzen zuen Eliza Katolikoak; baina, gero, errenta aitortpenaren bidez, herritarrek bazuten aukera Elizari dirua emateko, eta zerga horren bidez bildutako diruaren eta aurrekontuetatik zuzenean jasotakoaren artean zegoen aldea itzuli behar zuen Elizak. PSOEk memento batzuetan egin zizkion opariak Elizari; testuinguru politikoaren arabera, itzuli beharrekoarekin eskuzabal izan zen, eta Gonzalezen agintaldiko azken urteetan, aurrekontuetatik Elizak jasotzen zuen diru kopurua handitu egin zen. Hori egia da, baina PPren oinarritzko aldaketa bat gertatu da: ahaztu egin dira Elizak bere burua finantzatzeko planak; eta kostu hori Estatuak bere gain hartu behar duela onartu da, berez hala balitz bezala. Azken 8 urteetan, 250 milioi eurotik gora oparitu dizkio Espainiak Elizari, eta ja ez da kontuan hartzen diru hori berriro itzultzeko aukera. Konstituzioaren arabera, estatu akonfesionala da Espainia, baina, PP gobernuan denetik, estatu konfesional gisa jokatzeko du.

Gainera, liburuan nabarmendu duzunez, Eliza Katolikoak ez du inolako zergarik ordaintzen.

Ez du zergarik ordaintzen, eta, gainera, erabiltzen eta mugitzen dituen hainbat diru sarreraren inguruan ez dago batere kontrolik. Izan ere, hainbat bidetatik jasotzen du dirua Eliza Katolikoak: zati bat, Estatuak aurrekontuetatik; beste bat, Elizaren inguruan sortu diren GKE ugariei ematen



«PP Gobernuan denetik, estatu konfesional gisa jokatzeko du Espainiak»

zaizkien diru laguntzen bidez; halaber, eskola pribatu kontzertatuei ematen zaizkien laguntza handiak daude; eta, funtsean, Espainiako eskola pribatu eskola katolikoa da. Eta, gero, bada beste diru iturri handi bat: eliztarrek egiten dituzten diru emateak; hau da, elizetan egiten den diru bilketatik jasotzen den dirua. Diru horrek ez dauka inolako kontrolik eta fiskalizaziorik; elizbarruti bakoitzak bere kasa jokatzeko du, inork ez daki zenbateko kopuruak mugitzen diren. Barne demokrazia falta handia sumatzen da arlo horretan, eta Eliza barruko sektoreek ere salatu izan dute.

Halere, diru hori guztia Elizari eusteko bakarrik erabiliko balitz, ez nuke zere-

san handirik. Baina azken hilabeteetan agerian geratu da Eliza negozio espekulatiboetan dabilela: Gescartera kasua edo Bizkaiko elizbarrutiak Jersey egindako inbertsioak, esaterako.

Dena den, arazorik larrienetako bat irakaskuntza publikoko erlijio irakasleekin gertatzen dena iruditzen zaizu, ezta?

Ez dakit larriena den, bai-



FITXA:

Titulua: *Las sotanas del PP* (PPren sotanak).

Egilea: Mariano Sanchez Soler.

Argitaletxea: Ediciones Temas de Hoy, Madril.

Orri kopurua: 287.

na agerikoenetako bat bai. Kontua da, irakasle horien soldatak Estatuak ordaintzen dituela; baina, gero, irakasle horien aukeraketa eta kudeaketa Elizak erabaten du aurrera. Azkenaldian ezagunak egin dira lagunekin garagar- doak edatera ateratzeagatik, edo ezkondu gabe bikotean bizitzeagatik, Elizaren erabakiz, lanpostu horietatik bota dituzten lagunak; eta postu horiek ordaintzeko dirua ez du Elizak jartzeko, Estatuak baizik. Eta PPren gobernuak hori guztia baimentzen du. Halaber, abade militarren eta espetxeetako apaizen egoera.

Hain zuzen ere, alde batetik, Aznarren gobernuak Elizari ematen dizkion laguntza eta erraztasun ekonomikoak leudeke; eta, bestetik, harreman ideologikoagoa, politikoagoa...

Erabateko identifikazioa gertatzen ari da Elizaren eta Gobernuaren artean. Aznarrek lehendakaritza lortu eta atzerrira egin zuen lehen bisita Vatikanora izan zen, Aita Santuarengana. Irudi hark —Aznar eta Ana Botella mantelina jantzita Joan Paulo II.a agurtzen—, identifikazio osoa isaltzen du. Duela gutxi, Ana Palacio Atzerri ministroak irudi bera eman du: Ana Botella bezalaxe, mantelinarekin, Aita Santuaren aurrean makurtuta. Federico Trilloren adierazpen batzuk ere gogoangarriak dira: kazetarien aurrean esan zuen Ama Birjinari eskatzen ziola Espainiako arazoak konpontzeko. Agintariak, politikariak, ez daude fede pribatua arlo publikora eramateko, baizik arazoak konpontzeko. Aznarren Gobernuak hainbat kide Opusekoak dira, eta fede hori arlo publikora eramaten dute. Aznarren alabaren ezkontzako irudia ere oso esanguratsua da: Rouco-Varela meza ematen, eta Angel Garcia abadea, Mensajeros de la Paz erakunde kontserbadoreko burua, hari laguntzen. Funtsean, Aznarren gobernuak erakustaldi konfesional handiak egin ditu, eta Escrivá de Balaguerren kanonizazioa izan da azken adibidea. Gauza bat da edozein agintari edo politikari bere bizitza pribatuan mezetara joatea edo katoliko sutsua izatea; eta beste bat, fede pribatu hori fede politiko bihurtzea, horixe egiten baitute, beren fedari dimentsio politikoa eman. Hori kritikatzeko du, nork bere sinesmenak izatea erabat zilegi iruditzen baitzait. Finean, identifikazio ideologiko eta estetiko gertatzen ari da Aznarren gobernuaren eta Elizaren artean.